

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

#### Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua

#### **2020 Bizikidetza eta Aniztasun zerbitzurako diru-laguntzen deialdiari uko egitea**

Udal aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko egindako kreditu-atxikipenak jasotzen dituen 2020ko maiatzaren 19ko Alkatetza Dekretuari jarraituz, 2020ko ekainaren 26ko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020rako bizikidetza, aniztasuna, giza eskubideen babesa eta memoria historikoa sustatzeko jarduera eta proiektuetarako dirulaguntzen deialdia bertan-behera uztea erabaki zuen. Deialdi hau 2020ko martxoaren 20ko ALHAOn argitaratu zen.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 6an

*Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria*  
**ESTITXU PEREDA SAGREDO**